

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidioak idazteko laguntzak emateko 2025eko deialdia eta oinarriak onestea

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrari hasierako onespena ematea. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn (ostirala) argitaratu zen, (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean.

2025eko maiatzaren 16an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak "ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidioak idazteko laguntzak emateko udal programaren deialdi publikoa eta hori arautuko duten berriazko oinarriak 2025. urterako".

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak. Berriazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Erabaki horrek administrazio-bidea agortzen du, eta haren kontra zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiaren, bi hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, alde aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berriaz edo ustez ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

Deialdiaren berriazko oinarri arautzaileen publikotasunari buruz araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen dira:

Arau-esparrua

Ikus-entzunezkoak garatu eta ekoizteko eta gidioak idazteko dirulaguntzetarako 2025eko ekitaldiko deialdi hau deialdia bera arautzen duten oinarrien pean eta dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren pean (ALHAO, 88. zenbakia, 2023ko uztailaren 28koa; 2023ko urriaren 1ean sartu zen indarrean) egongo da. Ordenantza horretan aurreikusi gabekoetan, 38/2003 Legea (azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra) eta haren Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsia) aplikatuko da, bai eta aplikatzekoak diren gainerako arauak ere.

1. oinarria. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza-ildoak

Laguntza hauek indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2025-2027) aurreikusten dira, zeina 2025eko urtarrilaren 17an onetsi baitzuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak.

Planak dirulaguntza-ildo honen barruan kokatzen ditu laguntzak: “Tokiko sormen-sektorea babestea” (08_04_v02 fitxa). Tokiko sormen-sektorea babestea, horren xede estrategikoa delarik Kultura eta Sormen Industriak (KSI) sustatzea, oro har, eta bereziki ikus-entzunezkoen diseinuaren eta ekoizpenaren azpisektoreak, hartara ikus-entzunezkoen eta sormenaren industria babestu eta sendotzeko, garapen ekonomikorako nitxo potentzial gisa kokatu daitezten.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da ikus-entzunezko proiektuak (fikziozkoak, animaziozkoak, dokumentalak, esperimentalak eta telesailak) garatu eta ekoizteko eta zinema-gidoiak idazteko laguntza ekonomikoak emateko baldintzak ezartzea; norgehiagoka bidezko konkurrentzia-erregimena baliatuko da horretarako.

Laguntza ekonomiko hauek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta lehia bidezko konkurrentziaren bidez emango dira, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 19.1 artikuluekin eta III. kapituluarekin bat etorritik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia).

3. oinarria. Laguntza-modalitateak

Hauek izango dira laguntzen modalitateak:

A) Film luzeen, telesailen eta telesail laburren proiektuak garatzeko laguntzak, direla fikziozkoak, dokumentalak, animaziozkoak edo esperimentalak, jaialdietan, zinemetan, telebistan edo plataforma digitaletan publikoki emateko, oinarri hauetako A modalitatean adierazten den eran.

B) Film laburrak ekoizteko laguntzak, oinarri hauetako B modalitatean adierazten den eran.

C) Zinema-gidoiak idazteko laguntzak, oinarri hauetako C modalitatean adierazten den eran.

4. oinarria. Onuradunen betekizun orokorrak:

1. Egoitza soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizko udalerrian edukitzea, gutxienez urtebeteko antzintasunarekin.

2. Film luzeen, telesailen eta telesail laburren proiektuak garatzeko laguntzen kasuan, direla fikziozkoak, dokumentalak, animaziozkoak edo esperimentalak, jaialdietan, zinemetan, telebistan edo plataforma digitaletan emateko, eta film laburrak ekoizteko laguntzen kasuan (3. oinarriko 3. A eta 3. B modalitateak), hauek izan ahalko dira onuradunak: pertsona fisiko edo juridiko pribatu independenteak, baldin eta ekonomia jardueren gaineko zergan duten epigrafea eta, zein jardueratarako eskatzen duten laguntza, haren epigrafea bera badira, eta Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales-ICAA, gaztelaniaz) zinema eta ikus-entzunezkoen arloko enpresen erregistroan inskribatuta badaude. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko dira betekizun horiek — dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean —.

Zinemaren 55/2007 Legearen 4.n.1 artikulua xedatzen duenaren arabera, honako hauek joko dira ekoizle independentetzat: ikus-entzunezkoen komunikazio/zabalkunde arloko zerbitzuak ematen dituen entitate baten edo telebista-kanal pribatu baten titular baten eragin menderatzaileen agindupean ez dauden pertsona fisiko edo juridikoak, eta aldi berean, besteren gainean eragin menderatzailearik ez dutenak, ez jabetza arrazoiengatik, ez finantza-partaidetzagatik ezta kasuan kasuko administrazio- edo kudeaketa- organoen erabakiak nolabait baldintzatzeko ahalmena izateagatik ere. Beste kasu batzuk ere izatea eragotzi gabe, eragin menderatzailea dagoela joko da Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legearen artikulua horretan deskribatutako zirkunstantzietako edozein gertatzen denean.

3. Zinema-gidoiak idazteko laguntzei dagokienez (3. oinarriko 3. B. modalitatea), jarduera profesionaltzat gidoiak idaztea duten pertsona fisikoak izan daitezke onuradunak (EJZn horri dagokion epigrafean daudelarik).

4. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak egiten dituztenak ere (elkarteak, lanbide elkargoak eta abar).

5. Onuradunek betebeharrak fiskalak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izan behar dituzte, bai dirulaguntza ematea ebatzi aurretik, bai dirulaguntza ordaindu aurretik. Hori bete ezik, zein unetan gertatzen den, laguntza ukatzea edo laguntza itzultzeko beharra ekarriko du.

6. Dirulaguntza hauek eskuratu ahal izateko, ezinbestekoa da ez egotea administrazio-bidean edo bide penalean zigortua eta laguntza publikoak eskuratzeko aukerarik apartatua, ezta horretarako ezgaitzen duen inongo legezko debekuren menpe ere, horren barnean sartzen direlarik sexuagatiko diskriminazioagatik gertatuak edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik gertatuak 1/2023 Legegintza Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera (1/2023 Legegintza Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen Testu Bategina onartzen duena). Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. apartatuan ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

7. Hiru modalitateak bateraezinak dira elkarren artean. Deialdi honen barruan, proiektu bat 3 laguntza modalitate horietako bakarrean aurkeztu ahalko da.

8. Eskatzaile bakoitzak gehienez 4 proiektu aurkeztu ahal izango ditu; hala ere, pertsona eta modalitate bakoitzeko proiektu bakar batek jaso ahal izango du dirulaguntza. Modalitate berean 2 proiektu edo gehiago aurkezten badira, puntuazio handiena lortzen duen proiektuari emango zaio laguntza, eta ezetsi egingo dira eskatzaileak modalitate horretan aurkeztu dituen gainerako eskabideak.

9. Proiektu bera gehienez 3 aldiz aurkeztu ahalko da laguntza-deialdi honetara modalitate berean.

10. Edonola ere, udalaren aurreko deialdietan dirulaguntza jaso zuten proiektuak ezingo dira aurkeztu onuradun gertatu ziren laguntza modalitate berera, salbu eta onuradunak berariaz laguntzari uko egin bazion eta zegokion kopuru osoa itzuli bazuen (baldin eta jaso bazuen) deialdi berria ALHAOn argitaratu aurretik.

11. Ez da dirulaguntza ordainduko onuradunek (fisikoak edo juridikoak) laguntza hauen aurreko deialdietan edozein modalitatetan diruz lagundutako proiekturen bat justifikatu gabe badute.

5. oinarria. Baliabide ekonomikoak

1. Deialdi honetako dirulaguntzak partida honen kontura finantzatuko dira: 2025/08.21.4331.471.02, "Sormen- eta ikus-entzunezko industrientzako laguntza" izenekoa, zeinak 110.000,00 euroko aurrekontu-zuzkidura baitauka.

Zenbateko guztia 3. oinarrian zehaztutako modalitateen artean banatuko da, honela:

A modalitatea: Film luzeen, telesailen eta telesail laburren proiektuak garatzeko laguntzak, direla fikziozkoak, dokumentalak, esperimentalak edo animaziozkoak, haiek jaialdietan, zinemetan, telebistan eta plataforma digitaletan publikoki emateko: 50.000,00 euro.

B modalitatea: Film laburrak ekoizteko laguntzak: 50.000,00 euro.

C modalitatea: zinema-gidoiak idazteko laguntzak: 10.000,00 euro.

2. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 58. artikuluan xedatutakoaren haritik, zuzkidura hori handitu egin ahal izango da Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren erabakia dela medio, baldin eta udal sail horrek enpresei zuzendurik egiten dituen deialdietakoren batean soberako kreditua

badago. Edonola ere, zenbateko gehigarria erabiltzekotan, aski kreditu izan beharko da erabilgarri eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan.

3. Baldin eta, proposamenik aurkeztu ez delako edo haiek balioespen-fasean eskatutako gutxienerako puntuazioa lortu ez dutelako, modalitate bati esleitutako zuzkidura agortzen ez bada, soberan geratutako diru-kopurua erabili ahal izango da beste modalitateetako proiektu batzuk finantzatzeko, baldin eta, eskatutako gutxienerako puntuazioa lortu dutelarik, dirulaguntzarik (osoa edo zati bat) jaso ez badute, dagokien modalitateko kreditua agortu delako. Horretarako, itxaron-zerrenda sortuko da, modalitateen arabera, puntuazio handienetik txikienera antolatuta.

4. Halaber, itxarote-zerrenda kontuan hartuko da kasu hauetan ere: dirulaguntza jaso duen pertsona fisiko edo juridikoren batek laguntzari uko egiten badio, deialdi honetan zehaztutako baldintzak onartzen ez baditu edo betetzen ez baditu, dirulaguntzen erregelamendu orokorraren 63.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

5. Horrelakoetan, soberan geratutako kopurua modalitate bereko beste proiektu batzuk finantzatzeko erabiliko da; bestela, beste bi modalitateetako itxaron-zerrenda luzeagoetan dauden proiektuen artean puntuaziorik handiena duten proiektuetara bideratuko da. Bi modalitateetako itxarote-zerrendetan proiektu kopuru bera badago, puntuaziorik handiena lortu duten proiektuak lehenetsiko dira.

6. oinarria. Indarraldia eta eskabideak aurkezteko epea eta bideak

1. Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik jarriko dira indarrean oinarri hauek; aldez aurretik, laburpen-iragarkia argitaratuko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen.

2. Deialdia ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 20 egun balioduneko epean amaituko, egun horretatik aurrera kontatuta.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektronikoko bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsonak tramitazioak iraun bitartean, hartara eskabideak arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko behar diren abisuak helarazteko, legeak ezartzen duen moduan jakinarazi beharra gorabehera.

3. Pertsona eta entitate interesdunek eskabide bana aurkeztu beharko dute aurkezten duten proiektu bakoitzeko.

Deialdi honen eranskinetako ereduaren arabera aurkeztu behar dira eskabideak. Eskabidea-ekin batera, modalitate bakoitzerako zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dira.

4. Bide hauek baliatu ahalko dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

– Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa (<https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>). Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahalko dira, erregistro elektronikoa bidez. Horretarako, identifikazio-txartel digitala erabili beharko da.

– Aurrez aurre:

a) Udalaren bulego teknikoetan (Dublang Margolariaren kalea); ordutegia: 8:30 - 14:00 (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

b) Gizarte Etxeen sareko Herritarrei laguntzeko bulegoan (HLB). Hitzordua behar da, 010 telefonoan edo Udalaren www.vitoria-gasteiz.org webgunean eskatuta.

Aurrez aurre arreta emateko gunean, dokumentazioa orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistematik erabili gabe.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. b artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideak posta-bulegoetan ere aurkeztu ahalko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

5. Interesdunek eskabidea aurkezten dutelarik, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 12 e) artikularekin bat, ofizios egiaztatuko da eskatzaileak zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean ote dituen, salbu eta onuradunak horren aurka egiten badu, arrazoiak emanez. Eskakizun hori beteta eduki beharko da dirulaguntza ematen den unean, ordaintzeko obligazioa onartzen den unean eta dirulaguntza ordaintzen den unean.

6. Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

6.1. Eskabidearen akatsak zuzentzea.

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 20.4 artikularen ildotik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia), eskabideak deialdian xedatutako betekizunak betetzen ez baditu, 10 eguneko epean hutsak zuzen ditzan errekerituko dio organo eskudunak interesdunari. Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, beti ere, ebazpena eman ondoren, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera.

7. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura.

1. Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Balioespen-batzorde bat eratuko da horretarako, honako hauek osatua, 1/2023 Legegintza Dekretuaren 3.10 artikuluan xedatutakoaren arabera (1/2023 Legegintza Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen Testu Bategina onartzen duena):

Batzordeburua: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duena.

– Batzordekideak: deialdiaren xede den alorreko lau aditu, Vitoria-Gasteizko Udalak izendatuak.

– Idazkari teknikoa: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikari bat, zeinak ahotsa izango baitu, baina botorik ez.

2. Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkararen ebazpena ALHAOn argitaratuz jakinaraziko da balioespen-batzordearen osaera, hartara, hura eratu aurretik, interesdun orok errekusatzeko eskubideaz baliatzerik izan dezan legeak ezarritako kasu eta baldintzetan.

3. Balioespen-batzordeetarako izendatutako aditu profesionalek konfidentzialtasun-konpromiso bat sinatu beharko dute, bermatzearen eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa proiektuak balioesteko baino ez dutela erabiliko, betiere deialdian finkatutako irizpideei zorrotz jarraituz.

Gainera, adierazi beharko dute ez daudela Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-kausaren batean.

4. Eskabideak jaso eta izapidetzeko onartu ostean, eta eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, balioespen-batzordeak txosten arrazoitu bat egingo du, eta bertan zehaztuko egindako balioespenaren emaitza eta haien arteko lehentasuna. Instrukzio-organok ebazpena eman ondoren, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio eman edo ukatuko dira laguntzak, horretarako ahalmena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkarari eskuordetzeko aukera gorabehera.

Dirulaguntza modalitate bakoitzean ezarritako balioespen-irizpideetara hobekien egokitzen diren eskabideek soilik jasoko dute laguntza.

Dirulaguntzak eman edo ukatzeko erabakiak agortu egingo du administrazio-bidea, eta beraren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, alde zuzenetik aukerako berraztertze-errekurtsioa aurkez daiteke, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ebazpen espresaren ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, berriz, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoaren arabera Administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik.

8. oinarria. Ebazteko epea

Prozedura ebazpena emateko eta argitaratzeko epea sei hilabetekoa izango da gehienez.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da epe hori.

Interesdunek, dirulaguntzen ordenantza orokorraren 24.5 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eskabideak ezetsizat jo ahalko dituzte, Administrazioaren isiltasuna dela medio, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen delarik ebazpen espresik eman eta jakinarazi ez bada.

9. oinarria. Jakinarazpena edo argitalpena

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webguneko (vitoria-gasteiz.org) iragarki-taula digitalean argitaratuko dira. Emandako edo ukatutako dirulaguntzen zerrenda argitaratuko da, adieraziz nortzuk diren pertsona edo enpresa eskatzaileak, bai eta, hala badagokio, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazoia ere, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak emandako irizpideak kontuan hartuz.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; horretaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

10. oinarria. Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak

a) Laguntza zertarako eman zaien, osorik horretarako baliatzea.

b) Proiektuak garatzeko eta film laburrak ekoizteko laguntzetan (A modalitatea), Vitoria-Gasteizen bizilekua edo egoitza duten pertsona fisikoa edo juridikoek egindako lanetara bideratu beharko du onuradunak aurrekontuaren zati bat. Horretarako bideratu behar den ehunekoa, berriz, betekizun hori ezartzen den laguntza-modalitate bakoitzaren oinarrietan ezarriko da.

c) Diru-laguntza jasotzen duen proiektua deialdira aurkeztu den moduan gauzatzea. Dirulaguntza emateko kontuan hartu den proiektuan funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, alde zuzenetik idatziz eskatu beharko zaio Vitoria-Gasteizko Udaleko Enpresa Zerbitzuari, organo hori arduratzen baita laguntzak kudeatzeaz. Aldaketa horrek eskubide eskuratua galtzea ekar dezake.

d) Udalaren egiaztatze-jarduketan mende jartzea, baita bertako Kontu Hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

e) Deialdi honetara aurkeztutako gastu berak finantzatzeko bestelako laguntza edo dirulaguntzarik, diru-sarrerarik edo baliabiderik jasoz gero, beste edozein administrazio edo ente publiko edo pribatuk emanik (diren Estatukoak edo nazioartekoak), Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraztea; horretarako, ebazpen ofiziala aurkeztu beharko du, beste laguntza horiek jakinarazten zaizkion unean.

f) Egokitzat jotzen dituen argibideak eta agiriak eskatu ahal izango dizkie udalak dirulaguntza eskatzen duten pertsona edo entitateei, eskabidea behar bezala baloratu ahal izateko.

g) Dirulaguntzak jasotzen dituzten pertsonak Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntza izan dutela aipatu beharko dute, argi eta garbi, lagundutako jardueraren publizitaterako baliatzen dituzten bitarteko edo plataforma guztietan. Era berean, udal finantzaketaren berri eman beharko dute, eta Vitoria-Gasteizko Udalaren marka jarri lanaren kredituetan eta diruz lagundutako jarduera erakutsi edo zabaltzeko sortzen edo erabiltzen dituzten bitartekoetan.

h) Deialdi honetako laguntza-modalitate bakoitzerako ezarritakoak, eta Vitoria-Gasteizko Udalaren aurrekontuen kontura ematen diren laguntzetarako ezarritako betebeharrak eta baldintza oro.

i) Nolanahi ere, dirulaguntza osoa ordainduko da onuradunak justifikatu ondoren jarduera edo proiektua esleitu zitzaioneko baldintzen arabera gauzatu duela.

11. oinarria. Bateragarritasuna edo bateraezintasuna

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publikok edo nazioarteko edozein erakundek emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin, salbu zinema-gidoiak idazteko laguntzen modalitatean.

Modalitatearen arabera ezarritako mugak gorabehera, jasotako dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du gainditu, inolaz ere, dena delako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina batera.

Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza gutxitu egingo da, soberako zenbatekoan.

12. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketa funtsezkoen bat eragiten bada, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, betiere hirugarren baten eskubideak kaltetzen ez badira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak —Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen du— 64. artikuluan eta dirulaguntzen udal ordenantzak 25.1 artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) xedatutakoaren arabera.

13. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Vitoria-Gasteizko Udalak Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahalko ditu, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote pertsona onuradunek. Horrez gain, udaleko Kontu Hartzailatza Nagusiaren eskumena da Vitoria-Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzen finantza-kontrola egitea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

14. oinarria. Dirulaguntza galtzea, laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Oinarri hauetan jasotako kasuez gain, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) adierazten diren kasuetan itzuli beharko dira jasotako zenbatekoak, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera artekoak, bestea baino lehenagokoa bada.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren II. kapituluaren eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da itzulketaren prozedurari, kausei, preskripzioari eta itzultzeko betebeharrak dutenei dagokienez.

15. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 Erregelamendua, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko da.

16. oinarria. Berdintasun-klausulak

Entitate onuradunak Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan eta 1/2023 Legegintza Dekretuan (martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena) xedatutakoa bete beharko du. Era berean, errespetatu egin beharko ditu Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko otsailaren 15eko 4/2024 Legea, 2024ko martxoaren 1etik indarrean dagoena, eta Yogyakarta printzipioak: Giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak.

Horrela, giza eskubideen alorreko legedia eta dokumentazioa errespetatzeaz gain, pertsona onuradunaren proiektuak bat egingo du Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatzen dituen genero berdintasuneko politikekin.

Hori dela eta, konpromiso hauek hartzen ditu:

— Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzeko konpromisoa, herritarren egoera eta premia desberdinak sistematikoki kontuan hartuz; generoaren, klase sozialaren, jatorri kulturalaren, administrazio-egoeraren, adinaren edo dibertsitate funtzionalaren arabera desberdintasunak agerian uztera edo arintzera bideratutako helburu eta jarduketak espezifikoki txertatuz, eta ekintza positiboak aurreikusiz.

— Generoa kontuan hartzerakoan, pertsona guztiak emakume edo gizon heterosexualak direla ziurtatuz ez jotzeko konpromisoa —zisheteronormatibitatea—, ezta familia guztiak nuklearrak direla ere. Sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen tratamenduan, patologizazio, biktimitate eta pinkwashing orori ihes egiteko konpromisoa.

— Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sexua/generoa aldagaia sistematikoki txertatzeko konpromisoa —emakumea/gizona/ez-binarioa edo entitateak egokitzat jotzen duen beste forma bat—.

— Hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexista eta inklusiboa egiteko konpromisoa, pertsonak zein gizataldeak bidezko modu batean irudikatuz, eta generoaren edo egiturazko beste edozein desberdintasun-iturriren arabera rol eta estereotipoak sendotu gabe.

Dirulaguntza jaso dezaketen modalitateak

A Modalitatea. Proiektuak garatzeko laguntzak

A.1. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak eta gastuak.

1. Film luzeen, telesailen eta telesail laburren proiektuak garatzeko sostengu ematea izango da laguntzen xedea, direla fikziozkoak, dokumentalak, esperimentalak edo animaziozkoak, gerora ikus-entzunezko lan batean gauzatu daitezkeenak, haiek jaialdietan, zinema-aretoetan, telebistan eta/edo plataforma digitaletan emateko; gutxienez iraupen hau izango dute:

• Zinemarako lanak:

Film luzeak: fikziozkoak, esperimentalak, animaziozkoak eta sorkuntza-dokumentalak: 60 minutu.

• Telebistarako edo/eta plataforma digitaletarako lanak:

Film luzeak: fikziozkoak, esperimentalak, animaziozkoak eta sorkuntza-dokumentalak: 45 minutu.

– Telesailak eta/edo telesail laburrak: fikziozkoak, esperimentalak, animaziozkoak eta sorkuntza-dokumentalak: 24 minutu.

2. Modalitate honetatik kanpo geratzen dira ikus-entzunezko proiektu hauek:

a) Film laburrak, streaming bidezkoak, lehiaketak, talk show-ak, reality show-ak, talent show-ak, docu-reality-ak, turismoarekin lotutako proiektuak, making of-ak, hezkuntza- eta ikas-kuntza-programak, promoziozko lanak, bideo klipak, webseriak eta bideojokoak.

b) Eskabidea aurkezten den unean filmatzen hasita dauden proiektuak.

3. Ikus-entzunezko ekoizpena prestatu eta diseinatzeko lanak finantzatzea da laguntza hauen xedea, alegia, produkzio-fasearen beraren aurretik egin beharrekoak, eta 2025 eta 2026an egin beharko dira.

4. Diruz lagun daitezkeen gastuak:

a) Obraren egile-eskubideak eskuratzea.

b) Gidoia eta storyboard-a garatzea: berridaztea edo egokitzea, kanpo-aholkularitza, itzul-tzea eta egile-eskubideak erostea. Jasotzen den dirulaguntzaren ehuneko 20, gutxienez, gidoia garatzeko baliatu beharko da.

c) Promozio-materiala diseinatu eta prestatzea: material inprimatu eta/edo digitala, teaser-a, serie pilotua (fikzioa eta/edo animazioa), komunikazio-kanalak (web-orria, sare sozialak...) sortu eta kudeatzea.

d) Marketin eta banaketa-plana lantzea.

e) Koprodukzioko foroetara eta azoketara joatea: joan-etorriak, ostatua eta akreditazioak.

f) Castinga eta kokalekuen bilaketa.

g) Ikerketa dokumental eta grafikoa eta artxiboen bilaketa.

h) Garapena kudeatzeko langile-gastuak (aurrekontuaren ehuneko 15, gehienez).

i) Aurkeztutako proiekturako aholkularitza juridikoa eta fiskala: aholkularitza- eta koprodukzio-kontratuak idaztea, aurre-salmentak, obraren gaineko eskubideak, proiektuan parte hartzen duten profesionalakiko kontratuak eta abar.

j) Gastu orokorrak (aurrekontuaren ehuneko 5, gehienez).

5. Nolanahi ere, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak eta proiektua garatzeko behar-beharrezkoak direnak.

6. BEZa ez da gastutzat joko, berreskuratu edo konpentsatzeko aukerarik bada. Kasu horretan, eskabidearekin batera aurkezten den aurrekontuan eta dirulaguntzaren justifikazioan aurkezten den gauzatutako gastuen zerrendan BEZik gabe agertu beharko dira gastu-zenbatekoak.

7. Onuradunak Vitoria-Gasteizko udalerrian egingo diren inbertsioetara edo ekonomia-jardueretara bideratu beharko du proiektua garatzeko gastuaren ehuneko 30, gutxienez. Koprodukzioen kasuan, laguntzaren onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza-kuotari aplikatuko zaio ehuneko 30eko portzentaje hori.

Ehuneko hori gastuen zerrenda aurkeztean egiaztatuko da, bigarren ordainketa egin aurretik, eta, horretarako baliatuko dituen faktura eta/edo kontratuetan zehaztu edo jaso beharko da inbertsio edo ekonomia-jarduerak horiek Vitoria-Gasteizko Udalerrian egin direla, edo udalerrri horretan bizi diren pertsona fisiko edo juridikoen bidez.

A.2. Eskabideak eta aginduzko dokumentazioa aurkeztea.

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza-eskabideei:

Eskabide-orria eta zinpeko aitortpena, sinatuta: dagokion modalitatea adierazita.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

1. Eskatzaileari dagozkion agiriak.

1.1. Pertsona fisikoak:

a) Eskatzailearen nortasunaren egiaztagiria (NAN, AIZ...).

b) Ikus-entzunezkoen produkzioari dagokion EJZren epigrafean (961.1 edo antzekoa) alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Zinematografia eta ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA-Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales) zinema eta ikus-entzunezkoen arloko enpresen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

1.2. Pertsona juridikoak:

a) IFZren fotokopia.

b) Eratze-eskriturak eta estatutuak (eta gerora izandako aldaketak), bai eta dagokien erregistro publikoetan izena emanda daudela egiaztatzen duen agiria ere.

c) Ikus-entzunezkoen produkzioari dagokion EJZren epigrafean (961.1 edo antzekoa) alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

d) Zinematografia eta ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA-Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales) zinema eta ikus-entzunezkoen arloko enpresen erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

e) Legezko ordezkariaren NANaren edo AIZren fotokopia eta ordezkariaren ahalordearen egiaztagiria, dena delako organoak emandako ahalordetza-eskritura edo ziurtagiriaren bidez.

2. Proiektuari dagozkion agiriak:

a) Proiektu bererako eskatu edo eskuratutako laguntzen eta horien zenbatekoen erantzukizunpeko adierazpena, l. eranskinaren arabera.

b) Lortutako dirulaguntzei dagozkien ebazpen ofizialen kopia, non jasotako zenbatekoa agertu behar den (l. eranskinean zehaztutako laguntzak).

c) Azalpen-dosierra, non azaldu beharko den proiektua garatzeko aurreikusitako ekintza guztien deskribapen zehatza, finantzaketa eta bideragarritasuna, baita egutegi bat ere, proiektuaren faseen plangintza zehaztuta (filmatzen hasteko eta amaitzeko aurreikusitako datak barne).

d) Proiektuaren memoria, honako hauek jasotzen dituena:

– Sinopsia (orrialde 1 gehienez).

– Proiektu mota; hizkuntza, genero zinematografikoa, etab.

– Proiektuaren alderdi bisual eta artistikoaren tratamendua eta azalpena. Pertsonaien deskribapena. Zuzendariaren eta ekoizlearen oharrak.

– “Biblia” eta /edo atalen eskema/eskaletak (telesailak eta telesail laburrak).

e) Gidoia edo, halakorik ezean, gidoiaren tratamendua (20-30 orri artean) eta/edo eskaleta edo kontakizunaren argumentua, dokumentalen kasuan.

Telesailen kasuan, kapitulu baten gidoi osoa edo lehen denboraldirako gidoiaren lehen kapitulua eta sinopsia (edo denboraldi osokoa, telesail laburra bada).

f) Jatorrizko gidoiaren edo lehendik baden obraren gaineko jabetza intelektualaren eskubideak edukitzearen egiaztapena, Jabetza Intelektualaren Erregistroaren kopiaren bidez (edo bertan aurkeztu izanaren justifikantea), edo, halakorik ezean, eskubideak lagatzeko baldintzak eta egingo den kontratua hitzartuta daudela egiaztatzen duen agiria.

g) II. eranskina: proiektuaren garapenaren aurrekontu xehatu eta partidaz partida banakatua, aurreikusitako gastu guztiak jasotzen dituena, baita diru-sarreraren aurreikuspena ere.

Halakorik bada, koproduktoreak, produktore elkartuak eta banatzaileak bilatzeko plana erantsi.

h) Produkzioaren gutxi gorabeherako aurrekontu globala, Zinematografia eta Ikus-entzuzkoen Arteen Institutuaren (ICAA) eredu ofiziala baliatuz — haren web-orrian eskura daiteke—.

i) Zuzendariaren eta gidoilariaren ibilbide artistiko profesionala.

Zuzendariak aurretik film luzerik edo telesailik egin ez badu, baina bai film laburrak, kopia hautatuak edo proiektuak ostatatuta dauden web-orrien edo sare sozialen estekak, balioespenean kontuan hartzea nahi izanez gero.

j) III. eranskina: ekoiztetxearen ibilbidea eta hurrengo bi urteetako ekoizpen-aurreikuspenak. Aukeran, zinema jaialdi eta/edo lehiaketetan emandako sariak egiaztatzeko dokumentazioa, baita antzeko beste edozein dokumentazio ere, balioespenean kontuan hartzea nahi izanez gero.

k) Zuzendariak eta gidoilariak garapen-lanak egiteko izenpetutako akordioa.

l) Proiektua garatzen parte hartuko duten arduradun artistiko eta teknikoek sinatutako erantzukizunpeko adierazpenak eta/edo interes-gutunak; kasua bada, Vitoria-Gasteizen egoitza dutela adieraziko da haietan.

m) Halakorik bada, emakumeak zuzendari, produktore/produktore eragile, gidoigile eta argazki zuzendari arituko direla egiaztatzen duten kontratuak, erantzukizunpeko adierazpenak eta/edo interes-gutunak.

n) Halakorik bada, koprodukzio-kontratuen kopia, proiektuan parte hartzen duen ekoiztetxe bakoitzaren partaidetza-ehunekoa zehaztuta.

ñ) Finantzaketa-plana honako agiri hauek aurkeztuz egiaztatuko da:

– Onuradunak filma finantzatzeko jasotako bestelako laguntza edo dirulaguntza batzuk egiaztatzeko agiriak.

– Ekarpen pribatuak, inbertsio kontratuen bidez eta transferentzien banku-egiaztagirien bidez egiaztatuak, zeinetan berariaz adieraziko baitira jatorriko eta helburuko kontua, agindu-emailea eta onuraduna, zenbatekoa eta kontzeptua.

– Eskatzaileak finantzaketa-planean esleitutako funts propioak, hauen bidez bermatuta:

- Bermea edo banku-abala.
- Elkarrekiko berme-baltzu (EBB) baten edo kreditu ofizialeko baltzu baten abala.

– Telebista-kateekin, plataformekin eta banatzaileekin sinatutako eta indarrean dauden kontratuak.

– Beste finantzaketa-bide batzuk egiaztatzen dituzten agiriak.

A.3. Balioespen-irizpideak.

1. 1. Balioespen-batzordeak jasotako eskabideak aztertuko ditu, eta honako irizpide hauen arabera ebaluatuko:

a) Gidoiaren kalitatea (gehienez 30 puntu).

- Originaltasuna, sormena eta kalitate literarioa (gehienez 10 puntu).
- Egitura, garapena, ikuspegi bisual eta artistikoa (gehienez 10 puntu).
- Zinemara eramateko bideragarritasuna (gehienez 10 puntu).

b) Proiektuaren bideragarritasuna (gehienez 30 puntu).

- Aurrekontua proposatutako egikaritze-planari egokitzen zaion (gehienez 10 puntu).
- Finantzaketa-plana ekoizpen-kostuei egokitzen zaien, eta kostuak, proiektuari eta egikaritze-aurrekontuari (gehienez 10 puntu).

– Proiektuak koprodukziorako, banaketarako eta estatuan zein nazioartean publikoarengana iristeko duen potentzialtasuna eta bideragarritasuna, koproduktoreak, produktore elkartuak eta banatzaileak bilatzeko plan baten bidez adierazia (gehienez 10 puntu).

c) Proiektuaren eragin sozioekonomikoa (gehienez 10 puntu).

Arabako Lurralde Historikoarekiko lotura: aurreikusitako filmaketa-lekuak, proiektuaren gaia, Vitoria-Gasteizen/Arabian gastatu beharreko aurrekontua.

d) Produkzio-etxearen eta zuzendariaren ibilbidea (gehienez 8 puntu).

Produkzio-etxearen curriculum (4 puntu) eta zuzendariarena (4 puntu). Aldez aurretik egindako lanak hartuko dira kontuan, eta —egindako proiektuen kopurua baino gehiago— jaialdietan lortutako sariak edo ohorezko aipamenak balioetsiko dira.

d2) Zuzendari hasi berria: zuzendariaren lehen edo bigarren film luzea/seriea bada (4 puntu).

e) Jatorrizko bertsioa euskaraz (8 puntu).

Jatorrizko bertsioa euskaraz dela jo ahal izateko —eta 8 puntuak eskuratzeko—, deialdira aurkezten den tratamenduak edo gidoiak jatorriz eta osorik euskaraz idatzia izan beharko du, eta proiektua justifikatzerakoan aurkezten den gidioia ere jatorriz eta osorik euskaraz idatzita egon beharko du.

f) Emakumeen parte-hartzea zenbait zereginetan (zuzendaritza, produkzioa/produkzio eragilea, gidoigintza eta argazki-zuzendaritza) (gehienez 10 puntu).

- Zuzendaria emakumea bada: 3 puntu.
- Produktorea/ produktore exekutiboa emakumea bada (3 puntu).
- Gidoilaria emakumea bada: 2 puntu.
- Argazki zuzendaria emakumea bada: bi puntu.

Proiektuak zuzendari, ekoizle edo egile bat baino gehiago baditu, parte hartzen dutenen artean dauden emakumeen kopuruaren proportzioan emango da puntuazioa.

2. Aurkeztutako proiektuak dirulaguntza jasotzerik izan dezan, gutxienez 50 puntu eskuratu beharko ditu, arestian aipatutako irizpide eta puntuazioei jarraituz.

3. Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa izango da balioespenaren funtsa, eta balioespen-batzordeak eta idazkari teknikoak egiaztatu eta alderatu ahalko ditu.

4. Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, balioesteko atalean guztira lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko, hurrenkera honen arabera:

1. 1. A-3.a) atala. Gidoiaren kalitatea.

2. 2. A-3.b) atala. Proiektuaren bideragarritasuna.

Horrela jokatu da, hurrenez hurren, gaienerako atalekin.

A.4. Dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko.

1. Diruz lagun daitezkeen gastuen ehuneko 50eko dirulaguntza emango da gehienez (A-1, 4. puntua), gehienez ere 10.000,00 euro.

2. Proiektua garatzera bideratutako aurrekontua ez da izango ekoizpen guztiaren aurrekontuaren ehuneko 20 baino gehiago.

3. Laguntza koprodukzio baterako eskatzen bada, eskatzaileak gutxienez bukaerako produkzioaren ehuneko 20ko partaidetza izan behar du, eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntza inolaz ere ezingo da izan produktore eskatzailearen benetako partaidetzaren ehuneko 50 baino gehiago.

4. Bestelako dirulaguntza publikorik jasoz gero, guztien batura —deialdi honetakoak barne— ezingo da izan proiektua garatzeko kostuaren ehuneko 80tik gorakoa.

5. Laguntza jaso dezaketen proiektuen arteko azkenari ezin bazaio eman dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zuzkidura ez delako nahikoa, erabilgarri dagoen zenbatekoa baino ezingo da eman dirulaguntza gisa, eta itxaron-zerrendan geratuko da eskatutako gehieneko kopurua jaso ahal izateko.

A.5 Laguntza ordaintzea eta justifikatzea (epea eta modua).

1. Honela tramitatuko da proiektuak garatzeko ematen diren laguntzen ordainketa:

• Laguntza ematen delarik, laguntzaren ehuneko 80a ordainduko da.

• Gainerako ehuneko 20a, dokumentazio hau jasotzen denean, eta, nolana ere, 2026ko urriaren 31 baino lehen (egun hori barne):

— Proiektua garatzeko egindako jardueren eta lortutako emaitzen txostena.

Justifikazio-kontu arruntaren bidez egingo da justifikazioa, non, gutxienez eta oro har, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 33. artikuluan zerrendatutako dokumentuak jasoko baitira. Horretarako, justifikazio-kontu arruntaren eranskina bete beharko da (ikus eranskinak).

Garapen-gastuen zerrenda sailkatua, BEZik gabe, alderdi hauek zehaztuta: hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, egin bada, ordainketaren data. Horretan berariaz zehaztu beharko da Vitoria-Gasteizko pertsona fisiko edo juridikoetan egindako gastua, V. eranskinaren arabera (excel).

— Egindako gastuen justifikazioa, behar bezala egiaztatuta, zenbakitua eta V. eranskinari jarraitzen dion hurrenkera ordenatuta, jatorrizko fakturak edo kopia erkatuak eta ordainketak justifikatzen dituzten agiriak aurkeztuz. Koprodukzioko foroetara eta azoketara joateko gastuak (ostatua, joan-etorriak edo akreditazioak) badira, zein ekitalditara joan den justifikatzeko dokumentazioa.

Ordainagiriak onartuko badira, xedeak eta datak laguntza jaso den urtearen eta diruz lagundu daitezkeen epearen barruan (2025-2026) egon beharko dute.

- Proiektua finantzatzeko jasotako laguntzen eta dirulaguntzen zerrenda zehatza (ebazpenen kopia erantsita).
- Produzioaren behin betiko aurrekontua, Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) eredu ofiziala baliatuz – haren web-orrian eskura daiteke –.
- Gidoi osoa.
- Gidoigilearekin edo gidoigileekin eskubideak lagatzeko sinatutako kontratua – gutxienez bi urterako –, edo egin nahi den obraren gaineko eskubideak erosteko aukera ematen duen kontratua – gutxienez bi urterako –.
- Lan-planaren banakapen eta egutegi berria (garatzen denetik estreinaldira arte).
- Filmatzeko agertokien argazki eta agiri dosierra.
- Behin behineko casting-proposamenak.
- Finantzaketa-plan xehatua.
- Marketin- eta banaketa-plan xehatua.
- Argitaratutako promozio-material ororen ale bana (paperean eta/edo euskarri digitalean), teaser-ak, halakorik bada, eta/edo promozio-eduki digitalak barne hartzen dituzten web-orriekiko estekak.

2. Aurreko atalean adierazitako justifikazio-epaia haren beste erdi batez luzatu ahal izango da, baldin eta onuradunak alde aurretik eskatzen badu – horretarako arrazoiak azalduta – eta dagokion ebazpena onartzen badu Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresa Zerbitzuak proposatuta, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 31.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

3. Obra eta dirulaguntzaren xede den justifikazio-dokumentazioa aurkezteko epea luzatzeko eskaera epea amaitu baino gutxienez hilabete lehenago egin behar da, eta aldeko ebazpenaren jakinarazpena jasotakoan baino ez da eraginkorra izango.

4. Horrez gain, bigarren ordainketa egiteko, pertsona eta/edo entitate onuradunak egiaztatu behar du betetzen dituela A.1 oinarriaren 7. puntuan, A.4 oinarriaren 3. puntuan eta A.4 oinarriaren 4. puntuan ezarritako betekizunak; osterantzean, 14. oinarria aplikatuko da.

5. Baldin eta laguntzaren justifikazioa ez bada iristen laguntza emateko kontuan hartu den aurrekontuaren ehuneko 75era, proportzionalki gutxituko da, eta ehuneko 75 hori izango da dirulaguntza kalkulatzeko oinarri berria, ezertan eragotzi gabe A.4 oinarriaren aplikazioa.

6. Egokitzat jotzen badu, Enpresa Zerbitzuak garapen-gastuen zerrendako kostuen fakturak eta ordainagiriak eskatu ahalko dizkio onuradunari, dirulaguntza behar bezala erabili dela egiaztatzeko.

7. Deialdiaren 10. oinarrian ezarritako betekizunak betetzen ez badira, justifikazioa falta bada edo hori nahikoa ez bada, laguntza itzultzeko eskatuko da, deialdi honen 14. atalean ezarritako moduan.

B Modalitatea. Film laburrak ekoizteko laguntzak

B.1. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak eta gastuak.

1. Film laburrak edozein hizkuntzatan ekoizteko emango dira laguntzak, kapitulu honetan adierazten denaren ildotik.

2. Hartara, 60 minuturainoko luzera duten eta edozein euskarritan eginda dauden filmak joko dira film laburtzat, 30 minututik beherako iraupena gomendatzen delarik.

3. Ikus-entzunezkoaren produkzio-aurrekontuaren ehuneko 30 gutxienez Vitoria-Gasteizko udalerrian egindako inbertsioetara edo gauzaturako ekonomia-jardueretara bideratu beharko du onuradunak. Koprodukzioen kasuan, onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza-kuotari aplikatuko zaio ehuneko 30eko portzentaje hori.

4. Ezingo dute laguntza hau jaso deialdi hau argitaratu aurretik jaialdien zirkuituan, telebistan edo plataforma digitaletan estreinatutako obrek, eta ezta ere deialdi honen aurretik filmaketa eta postprodukzio-fasea amaitua dutenek .

B.2. Eskabideak eta nahitaezko agiriak.

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza-eskabideei:

– eskabide-inprimakia eta zinpeko aitorten sinatua: dagokion modalitatea adierazita (I. eranskina).

Eskabideari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

1. Eskatzaileari dagozkion agiriak.

1.1. Pertsona fisikoak:

a) Eskatzailearen nortasunaren egiaztagiria (NAN, AIZ...).

b) Ikus-entzunezkoen produkzioari dagokion EJZren epigrafean (961.1 edo antzekoa) alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) zinema eta ikus-entzunezkoen arloko enpresen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

1.2. Pertsona juridikoak:

a) IFZren fotokopia.

b) Eratze-eskriturak eta estatutuak (eta gerora izandako aldaketak), baita dagokien erregistro publikoetan inskribatuta daudela egiaztatzen duen agiria ere.

b) Ikus-entzunezkoen produkzioari dagokion EJZren epigrafean (961.1 edo antzekoa) alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

d) Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) zinema eta ikus-entzunezkoen arloko enpresen erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

e) Legezko ordezkariaren NAN edo AIZren fotokopia eta ordezkari-tza-ahalordearen egiaztagiria, dena delako organoak emandako ahalordetza-eskritura edo ziurtagiria bidez.

2. Proiektuari dagozkion agiriak:

a) I. eranskina: proiektu bererako eskatu edo eskuratutako laguntzen eta horien zenbatekoen erantzukizunpeko adierazpena.

b) Lortutako dirulaguntzei dagozkien ebazpen ofizialen kopia, non jasotako zenbatekoa agertu behar den (I. eranskinean zehaztutako laguntzak).

c) Proiektuaren azalpen-memoria: sinopsia (orrialde 1 gehienez), tratamendua eta proiektuaren alderdi tekniko, bisual eta artistikoaren azalpena. Pertsonaien deskribapena. Zuzendariaren eta ekoizlearen oharrak.

d) Dokumentalen kasuan, gidoia eta/edo eskaleta edo argumentu narratiboa.

e) Jatorrizko gidoiaren edo lehendik baden obraren gaineko jabetza intelektualaren eskubideak edukitzearen egiaztapena, Jabetza Intelektualaren Erregistroaren kopiaren bidez (edo bertan aurkeztu izanaren justifikantea), edo, halakorik ezean, eskubideak lagatzeko baldintzak eta egingo den kontratua hitzartuta daudela egiaztatzen duen agiria.

f) Proiektuaren aurrekontu xehatua, partidatan banatuta, Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) web-orrian lor daitekeen eredu ofizialaren edo antzekoen arabera.

g) Ekoizpen plana, aurreikusitako egutegia eta filmaketarako plana —edo animazio prozesua, kasua bada—, denbora eta lekuak zehaztuz. Berariaz adierazi behar da Vitoria-Gasteizen/Araban filmatuko den egun kopurua. Animazio proiektua bada, egitekoa den animazio estudioaren izena, helbidea eta IFZ.

h) IV. eranskina: finantzaketa-plana, ekoiztetxearen ekarpena eta gainerako ekarpenen ehunekoa eta zenbatekoa zehaztuta. Finantzaketa-iturri bakoitza (ekarpen propioak barne) lortu dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko da; zehazki:

— Onuradunak filma finantzatzeko jasotako bestelako laguntza edo dirulaguntza batzuk egiaztatzeko agiriak.

— Ekarpn pribatuak, inbertsio kontratuen bidez eta transferentzien banku-egiaztagirien bidez egiaztatuak, zeinetan berariaz adieraziko baitira jatorriko eta helburuko kontua, agindu-emailea eta onuraduna, zenbatekoa eta kontzeptua.

— Eskatzaileak finantzaketa-planean esleitutako funts propioak, honela bermatuak:

• Ziurtagiria edo banku-abala.

• Elkarrekiko berme-baltzu (EBB) baten edo kreditu ofizialeko baltzu baten abala.

— Telebista-kateekin, plataformekin eta banatzaileekin sinatutako eta indarrean dauden kontratuak.

— Beste finantzaketa-bide batzuk egiaztatzen dituzten agiriak.

i) Fitxa tekniko eta artistikoarekin batera, kontratuak aurkeztu beharko dira edo, horrelakorik ez bada, proiektuan parte hartuko duten teknikari eta artistek sinatutako erantzukizunpeko adierazpenak eta/edo interes-gutunak, Vitoria-Gasteizen bizilekua dutela adierazita, kasua bada.

j) III. eranskina: zuzendariaren, gidoigilearen eta produktorearen ibilbide profesionala.

k) Proiekturako proposatutako zuzendariaren idatzizko onspena.

l) Halakorik bada, zuzendaritza-, produkzio-/produkzio eragile-, gidoigintza- eta argazki zuzendaritza-lanetan emakumeen presentzia egiaztatzen duten kontratuak, erantzukizunpeko adierazpenak edo interes-gutun sinatuak.

m) Koprodukzio-kontratuen kopia erkatuak, halakorik bada, proiektuan parte hartzen duen ekoiztetxe bakoitzaren partaidetza-ehunekoa zehaztuta.

n) Iraunkortasun plan estrategikoa: lan-dosierra edo -plana, proiektuan iraunkortasun-irizpideei egokitzeko ezarri beharreko ekintzak jasotzen dituena.

Hori lantzeko, ikus-entzunezko proiektuek badute jardunbide egokien gida bat eskura Vitoria-Gasteizko Film Officeren web-orrian, zeina plan hori lantzeko oinarritzat baliatu baitezakete; iraunkortasun-parametroak betetzeko prozedurak jaso beharko ditu planak, proiektuen ingurumen-inpaktua minimizatzearen.

Helbide honetan dago eskuragarri aipatutako informazioa: <http://v-g.eus/jasangarritasuna>.

Balioesteko aurkezten den agiri oro laguntzaren helburu den proiektuarekin lotutakoa izango da nahitaez.

B.3. Balioespen-irizpideak.

1. Jasotako eskabideak aztertuko ditu balioespen-batzordeak, eta zehaztutako alderdietako bakoitza ebaluatuko, ondoren adierazten den baremoa aintzat harturik:

a) Proiektuaren kultur interesa (gehienez 38 puntu).

— Garatu nahi den gidoiaren originaltasuna, sormena eta kalitate literarioa (gehienez 20 puntu).

– Egitura, garapena eta ikuspegi bisuala (gehienez 10 puntu).

– Proiektuaren interes orokorra (gehienez 8 puntu).

b) Proiektuaren bideragarritasuna (gehienez 20 puntu).

– Aurrekontua eta produkzio-plana proiektuaren ezaugarriei egokitzea (gehienez 10 puntu).

– Finantzaketa-plana: autofinantzaketa edo finantzaketa pribatuaren maila: laguntza publikoek gain proiektuak duen finantzaketa balioetsiko da. Autofinantziazio-maila handiena duenak gehieneko puntuazioa lortuko du, eskatzailearen enpresa-arriskua bereziki kontuan hartuta (gehienez 10 puntu).

c) Proiektuaren eragin sozioekonomikoa (gehienez 20 puntu).

– Inplikaturako Vitoria-Gasteizko enpresa eta giza baliabideak (gehienez 10 puntu).

Vitoria-Gasteizen erroldatuta dauden profesionalak edo bertan egoitza iraunkorra duten enpresek eskaintzen dituzten baliabideak esleitzeko (sormenarekin edo arlo artistiko eta teknikoekin lotutakoak), kontratatzeko egiten den inbertsioaren ehunekoa hartuko da kontuan, proiektuaren aurrekontu osoaren arabera.

Ehuneko horiek IV. eranskinean adierazi beharko dira, eta balioespenean kontuan hartu ahal izateko, behar bezala egiaztatuko dira, erantzukizunpeko adierazpenen eta/edo interes-gutunaren bidez.

– Filmaketa edo animazio-prozesua Vitoria-Gasteizen/Arabian egitea: gehienez 10 puntu.

Filmaketa-lanen iraupen osoaren aldean Arabian filmaketa egiten diren egunen proportzioan emango dira puntuak. Animaziozko lanen kasuan, filmaketa-egunak animazio-estudioan emandako egunekin parekatuko dira, eta Vitoria-Gasteizen/Arabian egindakotzat joko da, animazio-estudioak egoitza sozial eta fiskala lurraldean bada.

d) Jatorrizko bertsoa euskaraz (gehienez 5 puntu).

Halakotzat jotzeko, aurkezten den gidoia jatorrian eta osorik euskaraz idatzitakoa izan beharko da.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko zinema aretoetan, zine-jaialdietan eta ikus-entzuzkoen erakustaldietan filma ematen den guztietan euskaraz izan beharko da, baina beste hizkuntza batzuetan idatzitako azpigituluak jarri ahalko dira.

e) Emakumeen parte hartzea (gehienez 7 puntu).

– Zuzendaria emakumea bada: 2 puntu.

– Produktore exekutiboa emakumea bada: 2 puntu.

– Gidoilaria emakumea bada: 2 puntu.

– Argazki-zuzendaria emakumea bada: 1 puntu.

Proiektuak zuzendari, ekoizle edo egile bat baino gehiago baditu, parte hartzen dutenen artean dauden emakumeen kopuruaren proportzioan emango da puntuazioa.

f) Ekoiztetxearen eta zuzendariaren ibilbide profesionala (gehienez 5 puntu).

Ekoiztetxearen curriculum (2 puntu) eta zuzendariarena (2 puntu). Aldez aurretik egindako lanak hartuko dira kontuan, eta —egindako proiektuen kopurua baino gehiago— jaialdietan lortutako sariak eta komunikabide espezializatuaren agertutako kritikak balioetsiko dira.

f.2) Zuzendari hasi berria: Zuzendariaren lehen edo bigarren film laburra bada (3 puntu).

g) Jasangarritasun-plana (gehienez 2 puntu).

Kontuan hartuko da garatu beharreko ekintzek jasangarritasun-irizpideei jarraitzen ote dieten, eta proiektuaren errealitatearekin eta ezaugarriekin bat ote datozen, sormen prozesu osoan zehar (hasi garapenetik eta postproduktoria arte).

2. Aurkeztutako proiektuak dirulaguntza jaso ahal izan dezan, gutxienez 50 puntu eskuratu beharko ditu, arestian aipatutako irizpide eta puntuazioei jarraituz.

3. Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa izango da balioespenaren funtsa, eta balioespen-batzordeak eta deialdiko idazkari teknikoak egiaztatu eta alderatu ahal dituzte.

B.4. Proiektuen balioespena eta dirulaguntzaren zenbatekoa.

1. Dirulaguntzak ezingo du diruz lagun daitekeen aurrekontuaren ehuneko 85 gainditu, eta gehienez 10.000,00 euro emango dira proiektu bakoitzeko.

2. Laguntza koprodukzio baterako eskatzen bada, koprodukzio-kontratuaren kopia konpultsatua aurkeztu beharko da, produkzio-etxe bakoitzaren ekarpenaren ehunekoak adierazita.

Era berean, eskabidea aurkezten duen produktoreak bukaerako produkzioaren ehuneko 20 izan beharko du gutxienez; deialdi honen onuradun izan daitezkeen koproduktore multzoen kasuan, berriz, horietako bakoitzaren partaidetzaren batura.

3. Bestelako dirulaguntza publikorik jasoz gero, guztien batura —deialdi honetakoak barne— ezingo da izan proiektua garatzeko kostuaren ehuneko 85etik gorakoa. Abenduaren 9ko 1090/2020 Errege Dekretuan —abenduaren 4ko 1084/2015 Errege Dekretuak aldatzen du hori, zeinak Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legea garatu baitzuen—, film laburrak “ikus-entzunezko obra zailtzat” hartzen dira, eta horrenbestez, aitortutako kostuaren ehuneko 85erainoko laguntza publikoak jaso ahal dituzte.

Gainfinantzaketarik gertatuz gero, murriztu egingo da emandako laguntzaren zenbatekoa, gehieneko mugara arte.

4. Diruz laguntzeko gastuak izango dira abenduaren 18ko ECD/2784/2015 Aginduak —film laburren eta luzeen kostuaren eta produktorearen inbertsioaren aitorpena arautzen du— 2. artikuluan aurreikusitako produkzio-kostuak.

5. Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, balioesteko atalean guztira lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko, hurrenkera honen arabera:

1. B-3.a) apartatua. Proiektuaren interes kulturala.

2. B-3.b) apartatua. Proiektuaren bideragarritasuna.

Horrela jokatu da, hurrenez hurren, gaienerako apartatuetan.

6. Laguntza jaso dezaketen proiektuen arteko azkenari dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ematerik ez dagoenean zuzkidura ez delako nahikoa, ematen zaion dirulaguntza ez da izango erabilgarri dagoen zenbatekoa baino, eta itxarote-zerrendan geratuko da gehieneko kopurua jaso ahal izateko.

B.5. Gauzatze-epea.

1. Laguntza eman zaiola jakinarazten zaionetik, 2026ko urriaren 31ra arteko epea izango du onuradunak produkzioa bukatzeko (egun hori barne), lehen kopia estandarra lortzea barne, eta justifikatzeko eskatutako agiri guztiak bidaltzeko.

2. Filmatzen hasteko eta amaitzeko datak Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntzak kudeatzen dituen organoari jakinaraziko zaizkio, filmatzen hasi baino gutxienez 10 egun lehenago, eta halaber, bukatzen denetik 20 egun igaro aurretik.

B.6. Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea.

1. Laguntza ematen delarik, lehen ordainketa bat egingo da, ehuneko 80koa.

2. Gainerako ehuneko 20a film laburraren ekoizpena bukatzen denean ordainduko da, Vitoria-Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian hemen aipatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren; 2026ko urriaren 31n (egun hori barne) amaituko da aurkezteko epea:

a) Obraren kopia bat, USB nahiz DVD batean (edozein bideo-formatutan) estreinatutako bertsio komertzial bakoitzeko, eta bikoiztu den hizkuntzetako bakoitzean. Behar izanez gero, kopia Digital Cinema Package (DCP) formatuan eskatu ahal izango zaio.

b) Proiektua sustatzeko dokumentazioa: pressbook-a edo proiektuaren promozio-dokumentazioa ostatatuta dagoen webgunerako estekak (halakorik bada); kartela, fotogramak eta argazki finkoak, trailerra, making of-a eta /edo ekoiztetxeak obra promozionatzeko duen edozein dokumentazio eta material, Vitoria-Gasteizko Udalaren film-ondarea gorde eta zabalkundea emateko interesgarri bada —inolaz ere ez zaie erabilera komertzialik emango—.

c) Justifikazio-kontu arruntaren bidez egingo da justifikazioa, non, gutxienez eta oro har, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 33. artikuluan zerrendatutako dokumentuak jasoko baitira. Horretarako, justifikazio-kontu arruntaren eranskina bete beharko da (ikus eranskinak).

Egindako gastuen egiaztapena, jatorrizko fakturak edo kopia erkatuak eta ordainketak justifikatzen dituzten agiriak aurkeztuta. Honako hauek egiaztatzen dituzten faktura eta kontratuak: produktoreen benetako ekarpenak eta haiek ekoizpenaren gainean dituzten titular-tasun-kuotak, eta laguntza-eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioan adierazi den Vitoria-Gasteizko enpresa- eta giza baliabideen ehuneko osoa bete izana.

Gastu horien zerrenda V. eranskinean ageri den excel ereduan (edo antzekoan) jaso behar da, eta/edo auditoria batean, aurretik adierazitako guztia zehaztuta (zenbakiak jarrita eta aurreko puntuari jarraituz aurkeztutako agirien hurrenkeran ordenatuta).

d) Kontratu, udal errolda edo faktura bidez egiaztatzea B-1 oinarriko 3. puntuan ezarritakoa bete dela.

3. Aurreko apartatuan adierazitako justifikazio-epea haren beste erdi batez luzatu ahal izango da, baldin eta onuradunak alde aurretik eskatzen badu – horretarako arrazoiak azalduta – eta dagokion ebazpena onartzen bada Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresa Zerbitzuak proposatuta, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 31.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

4. Obra eta dirulaguntzaren xede den justifikazio-dokumentazioa aurkezteko epea luzatzeko eskaera epea amaitu baino gutxienez hilabete lehenago egin beharko da, eta aldeko ebazpenaren jakinarazpena jasotakoan baino ez da eraginkorra izango.

5. Laguntzaren justifikazioa laguntza eskuratzeko kontuan hartu den aurrekontuaren ehuneko 75era iristen ez bada, proportzionalki gutxituko da, eta ehuneko 75 hori izango da dirulaguntza kalkulatzeko oinarri berria, ezertan eragotzi gabe B-4 oinarriaren 1. puntua aplikatzea.

6. Deialdiaren 10. oinarrian ezarritako betekizunak betetzen ez badira, justifikazioa falta bada edo hori nahikoa ez bada, laguntza itzultzeko eskatuko da, 14. oinarrian ezarritako moduan.

C Modalitatea. Zinema-gidoiak idazteko laguntzak

C.1. Dirulaguntza jaso dezaketekoen ekintzak eta gastuak.

Modalitate honen barruan, fikzio eta animazio-film luzeetarako eta/edo film dokumentaletarako zinema-gidoiak sortzeko emango dira laguntzak; Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatziak izan ahalko dira.

Ez dute laguntza jasotzeko aukerarik izango dagoeneko guztiz garatuta dauden gidoiek, eta gidoi-tratamendu bakarria aurkeztu ahalko da.

C.2. Eskabideak eta aginduzko dokumentazioa aurkeztea.

1. Deialdi honen eranskinetako ereduaren arabera aurkeztu behar dira eskabideak.

– eskabide-inprimakia eta zinpeko aitorten sinatua (l. eranskina), dagokion modalitatea adieraziz.

Eskabidea berezita aurkeztuko da, gutun-azalak/USBak/CDak eta/edo artxibo digitalak aurkeztean.

2. Dokumentazioa formatu hauetan aurkeztu ahalko da:

2.1. Dokumentazioa paperean: identifikazio-goiburu bera duten bi gutun-azal aurkeztu behar dira, A eta B letren bidez behar bezala berezita.

2.2. Euskarri digitalean ere aurkez daitezke agiriak (USB edo CD). Horietako bakoitzak identifikazio-goiburu bera eramango du, eta USBak/CDak A eta B letren bidez bereziko dira.

2.3. Egoitza elektronikoa: dokumentazioa erregistro berean igoko da, eta B erreferentzia duen PDF bat eta A erreferentzia duen beste bat bereziko dira.

“A” dokumentazioaren barruan ez da gidoigilearen idatzizko edo ikusizko erreferentziarik egingo, proiektuaren izenburua eta zein atali dagokion (sinopsia, memoria, etab.) baino ez da zehaztuko.

Aipamenik agertuz gero, proiektua deialditik kanpo geratuko da.

3. Aurkeztu beharreko agiriak:

3.1. A gutun-azala/A USBa/A CDa/erregistro elektronikoa.

Identifikazio-goiburua idatzi beharko da gutun-azalaren, USBaren edo CDaren kanpoaldean nahiz erregistroaren pdf-aren izenean, eta ez barruan ez kanpoan ez da agertu beharko egilearen izena. Barruan, dokumentazio hau sartu beharko da:

a) Gidoi-proiektuaren argumentuaren laburpena: gehieneko luzera, orrialde bat.

b) Gidoi-proiektuaren tratamendua, sekuentziaz sekuentzia: 20-30 orrialdeko luzera.

c) Elkarrizketa-sekuentzia: gutxienez 3 orrialde.

d) Gidoigilearen proiektuaren azalpen-memoria, 1-3 orrialdekoa, non azaldu beharko den proiektuaren interesa eta ematea espero den izaera.

Film dokumental luzeen kasuan, b) eta c) puntuen ordean, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko digute:

– Sekuentziaz sekuentziako eskaleta, 20-30 orrialde artekoa.

– Ikertu beharreko iturrien eta elkarrizketatu beharreko pertsonen zerrenda, eta dokumentatu beharreko pertsona eta/edo espazio bakoitzarekin jarraitu beharreko argumentu-ildoak.

3.2. B gutun-azala /B USBa/B CDa/erregistro elektronikoa.

B gutun-azalaren, USBaren edo CDaren edo erregistroaren kanpoaldean (pdf izena) A gutun-azaleko identifikazio-goiburu bera idatzi beharko da. Barruan dokumentazio hau sartu beharko da:

a) Eskatzailearen nortasunaren egiaztagiria (NAN, AIZ...).

b) Ikus-entzunezkoen produkzioari dagokion EJZn (861, 864 edo antzekoa) alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Gidoigilearen ibilbide artistikoa.

d) Erantzukizunpeko adierazpena (VI. eranskina), alderdi hauek zehaztuz:

– Zinema-areto komertzialetan erakusteko kalifikatuta dagoen film luzeren batean gidogile gisa ageri dela, filmen izenburuak eta ekoizpen urteak adierazita. Halaber, gidoia Jabetza Intelektualaren Erregistroan haren izenean erregistratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia.

– Ez duela beste dirulaguntzarik jasotzen beste edozein administrazio publiko edo entitate pribatuk emanik xede horretarako.

– Aurkeztutako tratamendua originala eta orain arte horrela garatu gabea dela.

– Dirulaguntzaren xede den proiektua euskaraz idatzitakoa bada, jatorrizko osoa euskaraz idatzia.

e) Jabetza Intelektualaren Erregistroan kalifikatu eta erregistratutako film laburren gidogile gisa ageri dela egiaztatzeko agiriak, eta film labur horiek estatuko zein nazioarteko jaialdietan lortutako sariak egiaztatzeko agiriak.

f) Aurkeztutako proiektua gidoi egokitu bat idazteko tratamendua bada, lehenagotik dagoen obraren eskubidea duenaren berariazko baimena duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da.

A gutun-azaletako gidoi-proiektuak kalifikatu ondoren — egileen izenak jakin gabe—, balioespen-batzordeak B gutun-azalak irekiko ditu, eta egileen eta horien ibilbideen inguruko guztia balioetsiko.

C.3. Balioespen-irizpideak.

Modalitate honetako eskabideak bi fasetan balioetsiko dira, irizpide eta baremo hauen arabera.

1. Lehen fasea: Gidoi-proiektuaren balioespena (gehienez 83 puntu).

– A atala: 70 puntu gehienez. Proiektua B atalera pasatzeko eta, ondorioz, bigarren fasera pasatzeko, gutxienez 35 puntu lortu beharko dira A atal honetan:

a) Proiektuaren originaltasuna (20 puntu).

b) Tratamenduaren kalitatea (30 puntu).

c) Proiektuaren interesa: bereziki balioetsiko dira proiektuaren bideragarritasuna eta gauzatzeko benetako aukerak, interes tematikoa eta geografikoa (20 puntu).

– B atala: 13 puntu gehienez.

a) Euskaraz idatzita egotea (gehienez 8 puntu).

Gidoiaren tratamendua euskaraz aurkezten bada eta horrela 8 puntuak lortzen badira, jatorriz euskaraz aurkeztu beharko da, eta ez da itzulpen automatizaturik onartuko, ez eskabidean, ez gidoi osoaren justifikazioan. Salbuespenez, euskarazko gidointzat onartuko dira gutxienez edukiaren ehuneko 80an euskaraz idatzitako lanak.

b) Proiektuan genero-ikuspegia txertatzea (gehienez 5 puntu).

2. Bigarren fasea: gidogilearen balioespena: gehienez 17 puntu.

1. Emakume batek idatzia izatea (gehienez 5 puntu).

2. - Dirulaguntzaren xedearekin lotutako ibilbide profesionala (gehienez 7 puntu).

3. Hogeita hamar (30) urtetik beherako gidogileentzat, baldin eta zinema-aretoetan erakusteko kalifikatuta dagoen film luzeren batean gidogile gisa agertzen ez badira: 5 puntu.

Baldintza hori egiaztatzeko kontuan hartu beharreko data eskabideak aurkezteko epearen azken eguna izango da.

Aurkeztutako proiektuak dirulaguntza jaso ahal izan dezan, gutxienez 50 puntu eskuratu beharko ditu adierazitako irizpide eta puntuazioen arabera; puntuazio horretara iristen ez direnak kanpoan utziko dira.

C.4. Proiektuen balioespena eta dirulaguntzaren zenbatekoa.

Dirulaguntza 5.000,00 eurokoa izango da proiektu bakoitzeko.

Modalitate honetan aurreikusten diren laguntzak ez dira bateragarri helburu berarekin beste edozein entitate publiko edo pribatuk ematen dituenekin.

C.5. Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea

a) Dirulaguntzaren ehuneko 50 esleipenaren ebazpena ematen denean ordainduko da.

b) Gainerako ehuneko 50a laguntzak kudeatzen dituen zuzendaritzara diruz lagundutako sorkuntza eta hemen adierazten den dokumentazioa bidalitakoan ordainduko da; 2026ko urriaren 31n (egun hori barne) amaituko da aurkezteko epea:

– Behin betiko zinema-gidoiaren ale bat, deialdian onartutako formatuetako edozeinetan (paperean edo PDF formatu digitalean), eta aurkeztu zen hizkuntzan.

– Lanaren Jabego Intelektualaren Erregistroko inskripzioaren kopia (edo aurkeztu izanaren justifikazioa), zeinean lanaren izenburutzat agertu beharko baita aurkeztutako gidoi osoaren izenburu bera.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko maiatzaren 21ean

Administrazio Zerbitzuko burua

JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ

ERANSKINAK

Eskabide-inprimakia: ikus-entzunezko proiektuetarako laguntzak eskatzea

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/60/93/76093.pdf>.

I. eranskina: bestelako dirulaguntzen aitorpena

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/60/87/76087.pdf>.

II. eranskina: proiektuak garatzeko lerrorako aurrekontu banakatua

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/60/88/76088.pdf>.

III. eranskina: ekoiztetxearen, zuzendariaren eta gidoigilearen ibilbidea

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/60/89/76089.pdf>.

IV. eranskina: finantzaketa-plana

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/60/90/76090.pdf>.

V. eranskina: gastuen zerrenda sailkatua.xls

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/45/38/84538.pdf>.

VI. eranskina: erantzukizunpeko adierazpena

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/45/37/84537.pdf>.

Justifikazioetarako inprimakia - Justifikazio-kontu arrunta

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/69/41/96941.pdf>.

Justifikazioetarako inprimakia – Kontu justifikatu sinplifikatua

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/44/36/94436.pdf>.